

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5899

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 17koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko bi beka emateko.

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortarazteko eta euskaltegiak arautzeko azaroaren 25eko 29/1983 Legeak 2.b artikuluan zehazten duenez, helduei euskara irakasteko metodologiagintzaren eremuko ikerlana sustatzea eta bere helburuak lortzearen irakasbide eta tresna egokien bilatzea dira HABEren egitekoetako batzuk. Lege horren 12. artikulua Hizkuntzaren Didaktika-zerbitzuan kokatzen ditu egiteko horiek, euskaltegiako irakasleen prestakuntza eta eguneratzearekin batera.

HABEk ikerketa-eremu berriak zabaldu eta landu nahi ditu helduen euskalduntzearen curriculumgintzan eta ebaluazio-egiaztagintzan, lan-eremuotako adituen prestakuntzarako egitasmo zehatzak emanez. Horretarako, ikertzaileen gaikuntzarako bi bekatarako deialdia egitea erabaki du.

Dena den, ez dira bekak aitortuko kreditu egokia edo nahikoa dagoela egiaztatu arte. Beken hasiera 2020tik aurrera egiaztatuko da.

Horregatik guztiagatik, eta HABEren arau organikoak onesten dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa betez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bi bekatarako deialdia egitea, helduen euskalduntzearen didaktika aplikatuaren metodologiagintzaren eremuan ikertzaileen gaikuntzarako, eta deialdi horren oinarriak onartzea ebazpen honen I. eranskinean ageri diren eran.

Bigarrena.– Ebazpen honetan aurreikusi gabe geratu diren gaietan, lege-xedapen hauetan ezarritakoa aplikatuko da: azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintza Dekretuak onartzen duen Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

Hirugarrena.– Interesdunei jakinaraztea ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak, eta, administrazio-bideari amaiera ematen ez dionez, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakiokela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

Donostia, 2019ko abenduaren 17a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

I.– Deialdiaren xedea.

Deialdiaren xedea da helduen euskalduntzearen didaktika aplikatuaren metodologiagintzaren alorrean ikertzaileak gaitzeko bi beka ematea.

II.– Baliabide ekonomikoak.

HABEren aurrekontuetan ezarritako aurrekontu kredituetatik deialdi honetarako gorde diren diru-baliabideak hirurogeita hamar mila eta zortziehun (70.800) euro dira guztira, honela banatuta:

1.– hogeita hamabost mila eta lauhun (35.400) euro 2020an ordaintzeko kredituan.

2.– hogeita hamabost mila eta lauhun (35.400) euro 2021eko konpromisozko kredituan.

III.– Beken edukia.

1.– Beka-hartzaileek helduen euskalduntzearen didaktika aplikatuaren metodologiagintzaren atal jakinetako ikerketan aditu gisa gaitzeko aukera izango dute.

2.– Gaikuntza-bekon helburuak honako hauek dira:

a) Bigarren hizkuntzen irakaskuntzari aplikatutako hizkuntza-espezializazio osagarria.

b) Ebaluazio zein egiaztatze gintzan aditu gisa prestakuntza osagarria lortzea.

IV.– Onuradun izateko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintzaz gain:

a) Unibertsitateko goi mailako titulazioa edukitzea, batez ere pedagogia, hizkuntzalaritza edo filologia eta soziologia arlotakoa, oinarri hauen VIII.3.a) puntuan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, atzerrian edo Espainiako zentro ez-estataletan eskuratu diren tituluek baliozkotuta edo aintzatetsita egon behar dute eskabidea aurkezten denean.

b) Gutxienez, Euskararen C1 ALTE ezagutza-maila ziurtatzen duen egiaztagiriren baten jabe izatea (C1 maila HABE; EGA; 3. H.E.– IVAP; C1 maila H.E.O), edo:

– urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzekoak, araututako unibertsitate- titulu ofiziala izan, lurralde nazional osoan baliozkoa dena, eta ondoren zenbatutako baldintzetakoren bat betetzea:

Baldintza-zenbakia	Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza prestakuntzako kreditu espezifikoak
1	48 ECTS	Euskaraz egindako Gradu-amaierako lana edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS
2	84 ECTS		12 ECTS
3	114 ECTS		6 ECTS
4	144 ECTS		
5	Doktore titulua (Tesia euskaraz idatzi eta defendatu izana)		
6	Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako gradua		
7	Itzulpengintza eta Interpretazioa gradua, euskara A hizkuntzat hartuta		

Edo,

– urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate ikasketa ofizialen antolamendua ezartzekoak, araututakoak baino lehenagoko unibertsitate titulu ofizialekoren bat izatea, betiere, 2008ko apirilaren 16aren ondoren eskuratutakoa bada eta lurralde nazional osoan baliozkoa, eta ondoren zenbatutako baldintzetakoren bat betetzen bada

Baldintza-zenbakia	Euskaraz egindako ikasketak	Baldintza gehigarria	Euskarako hizkuntza prestakuntzako kreditu espezifikoak
1	52 ECTS	Euskaraz egindako karrera-amaierako proiektua edo Master Ofizialaren amaierako lana	12 ECTS
2	84 ECTS		12 ECTS
3	114 ECTS		6 ECTS
4	144 ECTS		
5	Doktore titulua (Tesia euskaraz idatzi eta defendatu izana)		
6	Euskal filologiako lizentziatura		
7	Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura, euskara A hizkuntzat hartuta		

c) Eduki berdina edo euskararen irakaskuntzaren arloko prestakuntzarekin lotura duen bekarik jaso gabea izatea.

d) Administrazio-zehapen edo zehapen penalik sexu-bereizkeria egiteagatik ez edukitzea, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea edo beste xedapenen arabera, ez zaiola debekurik ezarri zehapenak irauten duen aldian ebazpen honetan araututako beka eskatzeko.

e) Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak ezarritako gainontzeko baldintzak.

2.– Beken esleipena, eta ordainketa hala dagokionean, baldintzatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere autonomiadun erakundeek izaera berarekin emandako dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik tramitatzen ari den edozein prozedura, izan itzulketakoa zein zehapenekoa, amaituta izatera.

V.– Beken ezaugarriak.

1.– Beka bakoitzaren iraupena hogeit hamar hilabetekoa izango da, onuradunek onartzen duten egunetik zenbatzen hasita.

2.– Beka bakoitzeko hogeita hamabi mila eta hirurehun (32.300,00) euro emango dira, bekadunari dagokion Gizarte Segurantzako kotizazio-kuotak eta aplikagarriak diren zerga-arauek finkatzen dituzten atxikipenei dagozkien diru-kopuruak barne direlarik. Hortaz, hileroko mila sei euro (1.600,00) gehi bekadunari dagokion Gizarte Segurantzako kuota ordainduko da, bekadunak XI.e) puntuari aipatutako txostena aurkeztu eta gero. Hala ere, bekadunari hileroko entregatuko zaizkion mila sei euro horien gainean dagozkion zerga-atxikipenak aplikatuko dira. Bestalde, 2020ko abenduan eta bekaren azken entrega ordaintzean urte bakoitzeko hilabetei dagokien likidazioa egingo da, hurrenez hurren.

3.– Diru-zuzkidura horrez gain, HABEren kontura izango dira bekadun bakoitzak bere prestakuntzarekin lotutako ikastaro eta kongresuetako izen-emateak, bai eta bidaiari-gastuak ere, tutorearekin edo hark eskuordetutako pertsonarekin egiten dituen bileretara edo bisitetara joaten denean, gehienez ere bekadun bakoitzeko 2.000 eurotako mugarekin, beti ere, gastu horiek egin aurretik, HABEren zuzendaritzak onatzen ematen baditu, eta ondoren bekadunak frogagiritz zuzitzen baditu. Bidaiari-gastuetarako garraio publikoari emango zaio lehentasuna, eta ezinezkoa bada, autoa erabiltzeagatik 0,29 euro/km. ordainduko da.

4.– Beka hau jasotzen bada ezin izango da beste erakunderen baten laguntzarik jaso; soilik jaso ahal izango dira, salbuespen moduan, kontu pertsonalei lotutakoak. Era berean, bateraezina da onuradunak bere edo besteren baten kontura egindako ordaindutako lanekin.

5.– Beka eman eta gozatzeak, prestakuntzako helburuaz egiten denez, ez du inolako kontratu edo estatutupeko harremanik sortzen HABErekin, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin ere. Administrazioaren bulegoetan arituko diren beka-onuradunen egutegiak, lanaldiek, eta ordutegiak ez dute zertan bat etorri behar Administrazioako langileek dutenekin, lan-kontratadunekin edo funtzionarioekin. Bekadunek egutegi propioa izango dute.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erantzukizun zibileko eta istripuetarako poliza bat harpidetuko du, bekadunen alde.

7.– HABEek bekari etekin egokia atera diotela frogatzen duten bekadunei horren lekuko ziurtagiria luzatuko die.

VI.– Eskariak.

1.– Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi honen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Beken eskatzaileek bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dituzte eskabidea egiteko, kontsultak egiteko edo deialdi honi buruzko edozein izapide egiteko.

Aurrez aurreko bidea edo bide elektronikoa erabiltzeak, bai eskabideak aurkeztean, bai dokumentazioa aurkeztean, ez du behartzen prozedurako hurrengo izapideetan erabiltzera, Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuak ezartzen duen bezala.

– Aurrez aurre: eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Zuzenean Zerbitzuaren bulegoetan, EAEko erregistro osagarrietan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoetan) edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan.

– Bide elektronikoa: eskabideak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan aurkeztu beharko dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen erregistro elektronikotan.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak aurrez aurre nahiz elektronikoki izapidetzeari buruzko informazioa eskuragarri dago, bai Administrazioaren bulegoetan, bai www.euskadi.eus atarian.

Eskabidea bide elektronikoz aurkeztu ondorengo izapideak helbide honetan egingo dira: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

4.– Eskabidea eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dira, bekaren eskatzailearen aukeran. Halaber, prozeduran zehar, beka eskatzen dituztenek aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2 a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, 7. puntuan ezarritakoa kontuan izanik:

a) Nortasun Agiri Nazionala edo pasaporteak.

b) Titulu eta ziurtagiri akademiko pertsonala, irakasgai guztien kalifikazioak eta deialdiak adierazita.

c) Curriculum vitae esplizitua:

– Graduondoko masterrak eta ikastaroak beken xede diren gaietan, eta beste merezimendu akademiko batzuk edo helduen bigarren hizkuntzak irakasteko metodologiaren ikerketa eta garapenean.

– Helduei euskara irakasteko jasotako edo emandako ikastaroak.

– Helduei euskara irakasteko metodologiari buruzko argitalpenak.

– Lan- edo lanbide-esperientzia.

– Hizkuntzak jakitea, lortutako ziurtagiriak edo tituluak adierazita.

– Bekaren xedearekin hertsiki lotutako beste edozein merezimendu.

d) Curriculum vitaean alegatzen diren merezimenduen egiaztatzeak.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena ez dela ari sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapen edo zehapen penalik betetzen, eta ez duela debekurik Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera ebazpen honetan araututako beken deialdietan parte hartzeko, zehapenak ezartzen duen aldiaren (III. eranskina).

f) Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena eskatzaileak ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere (III. eranskina).

g) Erantzukizunpeko adierazpena, ebazpen honetan araututako beka xede bererako eskatu duen beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuk ez duela xede eta helburu bererako dirulaguntzarik, laguntzarik, bekarik, diru-sarrerarik edo baliabiderik eskatu edo eman (III. eranskina).

6.– a), b) eta d) idatz-zatietan aurreikusitako agiriak jatorrizkoarekin konpultsatutako fotokopiaren bidez aurkeztu beharko dira.

Aurkeztutako dokumentuek, aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztutakoek, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Deskargagarriak diren ereduak erabiliko dira, halakorik dagoenean, eredu formatuan.

b) Gainerako dokumentazioa, ahal bada, pdf formatuan aurkeztuko da.

c) Dokumentazio elektronikoa guztien gehieneko tamaina 30 Mb-koa izango da.

7.– Eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntzen organo kudeatzaileari dokumentazioa-eskuratzeko edo egiaztatzeke (nortasunari eta helbideari buruzko datuak, eta bestelakoak), bide presentziala nahiz telematikoa erabiliz. Eskatzaileak uko egin diezaioke Administrazioak egiaztapena zuzenean egiteari, eta kasu honetan interesatuak berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

8.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

9.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztutako merezimendu-ziurtagiriek ez dute inolako baliorik izango.

10.– Eskabideak osorik beteta ez badaude edo horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago, HABEk antzemandako akatsa zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko eskatuko du. Horretarako, 10 eguneko epea emango dio interesdunari, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan aurreikusitako baldintzetan ebazpena eman ondoren.

11.– HABEk edozein unetan eskatu ahal izango du jatorrizko dokumentazioa entregatzeko, egiaztatze aldera.

12.– Interesduna ez dago behartuta HABEren esku dauden datuak eta dokumentuak aurkeztera, eta eskubide hori baliatzean, HABEren esku uzten ditu datu eta dokumentu horiek. Bide elektronikoz ere baliatu ahal izango da eskubide hori.

Bestalde, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22.4 artikularekin bat etorritik (2006ko uztailaren 25eko BOE, 17. zk.), eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen dio HABEri bide telematikoen bidez zuzenean sartzeko Errege Dekretu horren 18. eta 19. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko. Horrenbestez, kasu horretan, eskatzaileak salbuetsita daude ziurtagiria aurkezteko betebeharretik. Hala ere, eskatzaileek horiek kontsultatzea berariaz aurkaratu dezakete. Horretarako, behar diren egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

VII.– Organo kudeatzailea.

1.– HABEko Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuak burutuko ditu, Curriculum Garapena eta Prestakuntza Atalaren bitartez, beken esleipenak eta bekadunen tutoretzak eskatzen dituzten kudeaketa-lanak.

2.– Halaber, aipatutako atala arduratuko da bekadunen tutoretza-lanez.

VIII.– Hautagaien hautaketa.

1.– Merezimenduak baloratzeko Hautapen Batzordea osatuko da honako kideekin:

Mahaiburua:

– HABEko Hizkuntzaren Didaktika-zerbitziburua: Joxe Joan González de Txabarri Miranda.

Mahaikideak:

– HABEko Curriculum Garapena eta Prestakuntza Atalaren arduraduna: Luis Mari González de Txabarri Miranda.

– HABEko Programa Bereziako Atala: Xabier Elortza Mugika

– HABEko Materialgintza Atala: Eskarne Lopetegi Zalakain.

– HABEko Ebaluazio Atala: Alex Mungia Idarreta, batzordeko idazkari.

2.– Hautapen Batzordeak erabaki guztiak gehiengoz hartuko ditu.

3.– Bekadunen hautapena, ondoren zehaztutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta gauzatuko da:

a) Eskatzailearen espediente akademikoa; pedagogia, hizkuntzalaritza, filologia eta soziologia alorretako ikasketak lehenetsiz. Gehienez 15 puntu.

Arloko gradua: 15 puntu

Arloko ez den gradua: 10 puntu

b) Beken xede diren irakasgaietako masterrak eta graduondoko ikastaroak, eta beste merezimendu akademiko batzuk edo helduen bigarren hizkuntzak irakasteko metodologiaren ikerketa eta garapenean. Gehienez 5 puntu.

Doktoradutza: 3 puntu

Arloko masterra: 3 puntu

Arlokoa ez den masterra: 2 puntu

Ikastaroak: gehienez: 2 puntu

Ikerketa-eskarmentua: gehienez: puntu 1

Euskalduntze-esparruko eskarmentua: irakasle gehienez: 0,5 puntu

Euskalduntze-esparruko eskarmentua: teknikari gisa gehienez: 0,5 puntu

Euskalduntze-esparruko eskarmentua: aztertzaile gisa gehienez: 0,5 puntu

c) Hizkuntzaren irakastea online erabiltzeko ezagutza: gehienez 2 puntu.

d) Euskararen ezagutza. Gehienez 5 puntu, honelaxe baloratuko direnak:

C2 ALTE = 4. H.E.– IVAP; C2 maila HABE = 5 puntu

e) Ingeles maila. Gehienez 3 puntu, honelaxe baloratuko direnak:

C1 ALTE; Hizkuntza Ofizialetako C1 mailako agiriak; Advanced; BEC3; BULATS3; ESOLI0-11; TRINITY 10-11; TOEFLen 600 puntu baino gehiago ohiko azterketetan = 3 puntu.

B2 ALTE; Hizkuntza Eskola Ofizialetako B2 mailako agiriak; FIRST; BEC2; BULATS3; ESOL 7-9; TRINITY 7-8-9; TOEFLen 310 puntu baino gehiago ohiko azterketetan = 1,5 puntu.

B1 ALTE; Hizkuntza Eskola Ofizialetako B1 mailako agiriak; PET; BEC1; BULATS2; ESOL 5-6; TRINITY 5,6 = puntu 1.

f) Frantses edota aleman maila. Gehienez puntu 1, honelaxe baloratuko dena:

C1 ALTE. Hizkuntza Eskola Ofizialetako C1 mailako agiriak = puntu 1

4.– Hautapen-batzordeak objektibatu egingo ditu bekak eskatu dituzten pertsona guztiek lortutako puntuazioak eta beken esleipen-proposamena egingo du, eta balizko ukapen edo bestelako gorabeherarik izatekotan, bekak eman dakizkien eskubidea izango duten ordekoak ere proposatuko ditu dagokien hurrenkeran.

Era berean, Batzordeak baztertu eskaerak eta baztertzeko arrazoiak ere azalduko ditu bere proposamenean, edo horrela estimatuz gero, bekaren bat edo guztiak esleitu gabe uzteko proposamena.

IX.– Beken esleipena.

HABEren zuzendari nagusiak, Hautapen Batzordearen proposamena ikusita, eskariak aurkezteko epea amaitzen denetik lau hilabeteko epean erabakiko du beka nori eman, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Ebazpenean. Ebazpen horren aurka, nahi izanez gero, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango dute interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren aurrean, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean.

Ordeztu beharra izanez gero, ordezpina gertatzen denean bekadunari beka amaitzeko geratzen zaion tarterako eskubidea aitortuko zaio bekadun berriari, beti ere gelditzen den epea hamar hilabetekoa edo luzeagoa bada.

Deialdia hutsik gera liteke, inor aurkeztu ez delako edo hautagai bat bera ere ez delako eskatutako mailara iritsi.

Bekak esleitzeko epean dagokion ebazpenik argitaratzen ez bada, eskatzaileek ezetsizat jo beharko dituzte beka-eskabideak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

X.– Beken onarpena.

Bekaren onarpena idatziz jakinarazi beharko diote HABEren zuzendari nagusiari esleipendunek, bost egun balioduneko epearen barnean, esleipen-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aldi berean, ondoren zehaztutako erantzukizunpeko adierazpenak eginez:

- Beka emateak dakartzan betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen duela.
- Deialdi honetan finkatutako arauak onartzen dituela.
- Ez duela jaso beka honekin bateraezina den beste erakunde batek emandako laguntzarik.
- Ez duela bere edo besteren baten kontura ordaindutako lanik egiten.
- Familia-egoeraren aitorpena, zerga-atxikipeak kalkulatu ahal izateko.

XI.– Onuradunen betebeharrak.

Bekadunaren betebeharrak honako hauek dira, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 lege orokorraren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- a) Beka eman den helbururako erabiltzea.
- b) Bekari dagokion jarduera bost egun balioduneko epean hasi beharko du garatzen, esleipen egunetik kontatzen hasita.
- c) Prestakuntza-proiektuaren etapa desberdinak ondo aprobetxatuta bete beharko ditu, HABEko Curriculumaren Garapen eta Prestakuntza Atalak emandako jarraibideak betez.
- d) Erabiliko diren datu asko pertsonalak izango direnez, HABEren egoitza barruan bakarrik erabili ahal izango dituzte bekadunek eta ezingo dituzte kanpora atera edozein delarik erabilitako euskarria edo baliabidea. Hori dela eta, bekadunek HABEren egoitzan gauzatu beharko dute prestakuntza-jarduera.
- e) Sekretua gorde beharko du beka lortzearen ondorioz jakin dezakeen beste edozein informazio motari dagokionez, eta, ondorio horietarako, berariazko adostasuna eman beharko du.

f) Hilabete bakoitza amaitzean eta hurrengo hamar egunak igaro aurretik, eta proiektua amaitzean ere, bekadunek egindako prestakuntza-jardueraren eta lortutako emaitzen txostena bidaliko diote HABEren zuzendari nagusiarri; emaitzok Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Ataleko buruaren adostasuna edo oniritzia izan beharko dute. Era berean, proiektua amaitzean, bekadunak egindako proiektuaren kopia aurkeztu beharko du emandako dirulaguntza zuritzearen ondorioetarako bakarrik. Kopia hori entregatzeak ez darama berekin ustiapen-eskubideen lagapena.

g) Bekaren bitartez egingo duen lanei buruzko argitalpenetan edo inolako publizitatean, HABEren kolaborazioa adierazi beharko du, erakundearen identitate-marka barne.

h) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, bekak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea HABEren zuzendari nagusiarri.

i) Beka ematerakoan kontuan izan zen dena delako egoera objektibo edo subjektiboa aldatu egin baldin bada, horren berri ematea HABEren zuzendari nagusiarri.

j) HABEk, tutoritza, kudeaketa eta kontrol-jarduetarako egingo dituen egiaztapenen menpe egotea, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dien informazio guztia ematea, dirulaguntzen xedea fiskalizatzeko beren zereginetan ari direnean.

XII.– Baldintzen aldaketa.

Bekak emateko kontuan izandako edozein baldintza aldatu egiten bada, dirulaguntza ematea ekarri duen erabakia aldatu egin ahal izango da, betiere onuradun izateko arauzko oinarriak eta oinarri hauek ezartzen dituzten gutxienekoak betetzen baldin badira.

Halaber, bekadunak jasandako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz baja-egoera aitortzen zaionean, etenda geldituko da prestakuntza-prozesua egoera horrek hilabete baino gehiago irauten badu. Kasu horretan hilabetero egiten zaion ordainketa ere etenda geldituko da, Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagokion ordainketa-zatia salbu; ordainketa hori ez da etengo. Baja-egoerari dagokion prestakuntza-aldia iraupen guztia osatzeko gelditzen den denboraldian errekuiperatuko da; hala ere, baja-egoerak hilabete baino gehiago iraun duen kasuetan, bekadunak beka iraupenaren data atzeratzeko aukera izango du, gehienez ere prestakuntzaren epealdia etenda egon den epe berdina osatu arte.

XIII.– Ez betetzeak, kobratzeko eskubidea galtzea eta beka itzultzea.

1.– Esleipendunen batek deialdi honetan ezarritako betebeharrak urratzen baldin baditu, HABEren zuzendari nagusiak, espedienteko interesdunari entzunaldi-izapidea eskaini ondoren, emandako beka kobratzeko eskubidea galdu dela aitortuko du, edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli behar direla eta aplikagarriak diren interesak eskatu behar direla adieraziko du, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Arau orokor gisa, jasotako zenbateko osoa itzuli beharko da. Hala ere, kasuan kasuko egoeren arabera, jasotako zenbatekoen zati bat itzultzeko erabaki ahal izango du, bitartean izandako aprobeitxamenduaren arabera eta uko egiteko arrazoiei erreparatuta.

2.– Izapidetutako espedientearen zioz jasotako zenbatekoak itzuli behar direla ondorioztatzen bada, eta, hala badagokio, baita zenbateko horri dagozkion atzerapen interesak ere, ebazpen bat emango da, itzulketa hori egiteko beharrezko informazioa jasoko duena. Dirua bi hilabeteko epean itzuli beharko da, itzuli beharra adierazten duen jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, eta, betiere, kontuan hartu beharko da abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren bigarren tituluan ezarritakoa. Dekretu horrek, hain zuzen, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen du eta horien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen ditu.

3.– Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Ogasun eta Ekonomia Sailari jakinaraziko zaio, premiamendu-bideari ekin ahal izateko, indarrean dauden xedapenak ezarritakoaren arabera.

XIV.– Bekari uko egitea.

Esleipendunak bekari uko egiten badio, idatziz jakinarazi beharko dio HABEren zuzendari nagusiari eta aprobetxatu ez den bekaren zatirako V. oinarrian aurreikusten diren eskubide ekonomikoak galduko ditu. Uko egitea beste izapiderik gabe onartuko da. Halakoetan, HABEren zuzendariak ebatziko du Hizkuntzaren Didaktika zerbitzu-arduradunaren proposamena ikusita, ea beka ordezkoen zerrendan hurrengo puntuazioa duten pertsonen esleitu behar zaien.

XV.– Datu pertsonalen tratamendua.

Beka-deialdi honen kudeaketaren ondorioz eskuratutako datu pertsonalak abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2016/679 (UE) Erregelamenduak eta araututakoari jarraikiz, «Ikerketarako prestakuntza beka» izeneko tratamenduan erantsiko dira, Helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzan ikertzaileak gaitzeko beka tutorizatuen kudeaketa burutzeko.

HABEren zuzendari nagusia izango da tratamenduaren administrazio-organo arduraduna.

Tratamendua beharrezkoa da legez ezarritako betebeharrak gauzatzeko eta interes publikokoa den jarduera sustatzeko.

Interesdunak bere datuak ikusteko, zuzentzeko zein ezabatzeko eskubidea izango du, baita haien tratamendua mugatzeko nahiz haren aurka egiteko, informazio gehigarrian adierazten den moduan.

Halaber, bere datuen tratamenduari buruzko informazio osagarria eskura dezake helbide honetan: <http://www.habe.euskadi.eus/datu-pertsonalen-babesa-haben/s23-edukiak/eu>.

II. ERANSKINA
BEKETARAKO ESKAERA

Izen-abizenak	
NAN	
Especializazio-gunea (gurutze bat egin dagokion tokian)	
	Curriculumgintzan aditu gisa prestakuntza osagarria lortzea
	Ebaluazio zein akreditaziogintzan aditu gisa prestakuntza osagarria
Helbidea:	
Telefonoa:	
Ikasketa-titulua	
Graduondoko ikastaroak	
Beste merezimenduak helduen euskalduntzearen alorreko metodologiagintzaren ikerketan	
Egiatzaturiko euskara-maila	
Egiatzaturiko ingeles-maila	
Egiatzaturiko frantses-maila	
Egiatzaturiko aleman-maila	

2019ko abenduaren 30a, astelehena

ADMINISTRAZIOARI EZ DIOT BAIMENIK EMATEN BERE KABUZ BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK EMANAK DIREN AGIRIAK, EZ ETA BESTE ADMINISTRAZIOETAN AURKEZTUTAKOAK, ESKURATZEKO.

Aurkezten ditudan agiriak:
(gurutze bat egin dagokion tokian)

	BAI, ESKAERARI ERANSTEN DIOT
NANaren fotokopia	
Ikasketa-titulua	
Ikasketen ziurtagiri zehatza (emaitzak eta horiek lortu ziren deialdiak)	
Curriculum vitae	
Laneko esperientzia egiaztatzen duten agiriak	
Ikerlanetarako esperientzia eta argitalpenak egiaztatzen dituzten agiriak	
Prestakuntza ekintzetan parte hartu izanaren egiaztariak	
Euskara ezagupenaren egiaztariak	
Ingelesa ezagupenaren egiaztariak	
Frantsesa ezagupenaren egiaztariak	
Alemanara ezagupenaren egiaztariak	

HABEREN ZUZENDARI NAGUSIA

III. ERANSKINA

Eskaera izenpetzen duenak bere ardurapean adierazten du:

1.– Ez duela administrazio-zehapenik nahiz zehapen penalik sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, eta horretaz gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiola debekurik jarri zehapenak irauten duen aldian ebazpen honetan araututako dirulaguntza eta laguntzak eskatzeko.

2.– Ez / Bai (ez dagokiona ezabatu), itzulketa-edo zehapen-prozeduraren baten baitan dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzei dagokienez, artean prozedura izapidetzen ari dela.

3.– Ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapenik, ez eta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion lege-debekurik ere.

4.– Ez duela eskatu edo ez duela jaso ebazpen honetan araututako bekaren helburu bera duen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik, beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuegandik.

5.– Ez dela ari inolako lan ordaindurik egiten, ez bere kontura, ezta ere beste inoren kontura.

6.– Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan zerrendaturiko egoeraren batean, hain zuzen ere, dirulaguntzak eskuratzea oztopatzen dituzten egoeraren batean.

..... (e)n, 20.... (e)koren (e)an.

Izpta.: